



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**IZARRA CENTREN KOKATUKO DIREN ETA ERMUKO INDUSTRI EHUNA
BULTZATU ETA/EDO DIBERTSIFIKATUKO DUTEN ENPRESEI
ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN OINARRIAK**

**BASES DE AYUDAS DIRIGIDAS A IMPULSAR EMPRESAS TRACTORAS
Y/O DIVERSIFICADORAS DE TEJIDO INDUSTRIAL DE ERMUA QUE SE
UBIQUEN EN IZARRA CENTRE**

3009/2016

ALC10I0B8

Código de validación/Balidazio kodea

1S200E536I1V52160TPT



**IZARRA CENTREN KOKATUKO
DIREN ETA ERMUKO INDUSTRI EHUNA
BULTZATU ETA/EDO
DIBERTSIFIKATUKO DUTEN ENPRESEI
ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN
OINARRIAK**

**BASES DE AYUDAS DIRIGIDAS A
IMPULSAR EMPRESAS TRACTORAS Y/O
DIVERSIFICADORAS DE TEJIDO
INDUSTRIAL DE ERMUA QUE SE
UBIQUEN EN IZARRA CENTRE**

2016eko DEIALDIA

Sustapen ekonomikoa udalerri baten garapenerako funtsezko elementua da. Enpresa-proiektu berriak sortzera zuzendutako eta testuinguru ekonomiko eta sozial emankor bat sortuko duten politika eraginkorrik gabe ezin dira bizi maila egokia mantentzea ahalbideratuko duten garapen sozial, hiri-garapen eta garapen ekonomiko sostengarriak sortu. Udalerrri batek duen ehun ekonomikoak eta, haren sendotasunak eta lehiakortasunak udalerri bezala sendotzen dute eta datozen belaunaldien garapen profesionala bermatuz udalerriak aurrera egitea ahalbideratzen dute.

Ermuko Udaletxea udalerri batek duen ehun ekonomikoaren garrantziaz jakitun da, eta, zentzu honetan, enpresa-egitura sendo, lehiakor eta moderno bat ahalbideratzeko asmoz aspaldi hasi zen Ermuko enpresak eta ekintzaileak laguntzeko politika eraginkorrak exekutatzeko. Ildo honi jarraituz, Udalak bi lan ildo zehaztu ditu: enpresa-ehun tradizionala indartzea eta sektore teknologikoetarako dibertsifikazioa bultzatzea.

Dibertsifikazio-estrategia honek krisi garaia toki garapenean eragin handia duten sektore gutxi batzuekiko edo/eta merkatuekiko menpekotasuna saihestea du helburu. Ezin dugu ahaztu gure lurraldeko

CONVOCATORIA 2016

La promoción económica es un elemento fundamental para el desarrollo de un municipio. Sin políticas activas dirigidas a crear un contexto económico y social fértil para la generación de nuevos proyectos empresariales no se puede garantizar un desarrollo social, urbano y económico sostenible en el tiempo que permita mantener los niveles adecuados de calidad de vida. El tejido económico de un pueblo, su fortaleza y su competitividad, lo consolida como pueblo y le permite avanzar permitiendo el desarrollo profesional y vital a las distintas generaciones de personas.

El Ayuntamiento de Ermua es consciente de la importancia del tejido económico de un municipio, y, en este sentido, hace mucho tiempo que lleva ejecutando políticas activas de apoyo a las empresas y emprendedores de Ermua que permitan consolidar una estructura empresarial fuerte, competitiva y moderna. En esta línea, el Ayuntamiento ha apostado por dos líneas de trabajo: fortalecer el tejido empresarial tradicional e impulsar la diversificación económica hacia sectores tecnológicos.

Esta estrategia de diversificación pretende evitar la dependencia económica respecto de pocos sectores económicos o mercados cuyos períodos de crisis supongan fuertes impactos en el desarrollo

ekonomia automobilgintzaren laguntzaileak diren enpresa txiki edo ertainek osatzen dutela.

Enpresa hauen lehiakortasuna handitzeko apustua argia da, baina beharrezkoa da beste enpresa teknologiko batzuen sorkuntza bultzatzea. Horiek, lurraldeko ekonomia dibertsifikatzeaz gain, enpresa tradizionalei gaitasun eta teknologia berriak eskainiko dizkiete.

Testuinguru honetan, Izarra Centre balore ekonomikoa sortzeko azpiegitura legez eratu da, bai enpresa berriak sortuz, bai beste leku batzuetan kokatuta dauden enpresak erakarriz.

Izarra Centre teknologia eremuan lan egiten duten enpresentzat balio handiko erreminta bilakatu da, ez bakarrik dituen instalazio aurreratuengatik, baita ere edukiera handiko banda zabalera duen zuntz optikozko sarea izateagatik, ia dena Sarean gertatzen den garai hauetan hain baliagarria dena.

Testuinguru honetan, bizi dugun garai teknologiko honetan, beste lurralde batzuetan kokatutako enpresek Izarra Centrek eskaintzen duen balio erantsia eskaintzen ikus dezaten, beharrezko bitartekoak jartzea da egokiena. Ermura enpresa berriak etortzeak gure lurraldean enplegua sortzea ekarriko du ezinbestez, beraz, abian jartzen diren mekanismoak, baliabide publikoen eraginkortasunaren mesedetan, helburua lortzera bideratu behar dira.

Laguntza horien jomuga gure udalerrian enplegua sortzea da, bai enpresa berriak Ermura erakarriz, bai enpresa

local. No podemos olvidar que nuestra economía local esta predominantemente formada por pequeñas o medianas empresas del sector auxiliar del automóvil.

La apuesta por aumentar la competitividad de estas empresas es clara, pero es necesario también generar otro tipo de empresas tecnológicas que, no sólo diversifiquen la economía local, sino sirvan también para ofrecer nuevas competencias y tecnologías a la empresa tradicional.

En este contexto, Izarra Centre se ha constituido como una infraestructura de primer orden para generar valor económico, ya sea mediante la generación de nuevas empresas o a través de la atracción de empresas ahora ubicadas en otros sitios.

Izarra Centre es una herramienta de enorme valor para empresas del ámbito tecnológico, no sólo por sus instalaciones avanzadas, sino también por su red de fibra óptica con un ancho de banda de gran capacidad, de gran utilidad en tiempos donde casi todo ocurre en la Red.

En este contexto, procede poner los medios adecuados para hacer visible Izarra Centre como un espacio de valor añadido para las empresas ubicadas en otros territorios que busquen competir en estos tiempos tecnológicos. La llegada a Ermua de nuevas empresas ha de implicar necesariamente la creación de empleo en nuestro territorio, por lo que aquellos mecanismos que se pongan en marcha, en aras de la eficiencia de los recursos públicos, deben ir dirigidos con especial atención a conseguir objetivo.

Estas ayudas tienen como fin último la generación de empleo en nuestro municipio mediante la llegada a Ermua de nuevas



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**IZARRA CENTREN KOKATUKO DIREN ETA ERMUKO INDUSTRI EHUNA
BULTZATU ETA/EDO DIBERTSIFIKATUKO DUTEN ENPRESEI
ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN OINARRIAK**

**BASES DE AYUDAS DIRIGIDAS A IMPULSAR EMPRESAS TRACTORAS
Y/O DIVERSIFICADORAS DE TEJIDO INDUSTRIAL DE ERMUA QUE SE
UBIQUEN EN IZARRA CENTRE**

3009/2016

ALC10I0B8

Código de validación/Balidazio kodea

1S200E536I1V52160TPT



*tradizionaletan lehiakortasun-proiektuak
finkatuz.*

empresas o la consolidación de proyectos
de competitividad en empresas
tradicionales.

1. Artikulua.- Xedea

*Deialdi honen xedea da Izarra Centren
kokatuko diren Ermuko ehun industrialaren
trakzio-enpresa edo/eta dibertsifikatzaile
diren enpresentzat 2016. urtean emango
diren laguntzen oinarriak finkatzea.*

Artículo 1. – Objeto.

El objeto de la presente convocatoria
es regular las ayudas, a conceder en el
ejercicio 2016 dirigidas a empresas tractoras
y/o diversificadoras del tejido industrial de
Ermua que se ubiquen en Izarra Centre.

**2. Artikulua.- Baliabide
ekonomikoak**

*Deialdi honen xedea betetzeko
baliabide ekonomikoak 420 programan,
471.00 diru-partidan zehaztuko dira urtero.
2016 urtean funtzional horri 69.000 euroko
diru-kopurua esleitu zaio.*

Artículo 2. – Recursos económicos.

Los recursos económicos destinados
al cumplimiento del objeto de la presente
convocatoria se determinaran anualmente
en el programa 420, partida económica
471.00 del presupuesto municipal. En el año
2016 se ha asignado una partida de 69.000€
a dicha funcional.

**3. Artikulua.- Diru-laguntza jaso
dezaketen jarduerak**

Ondorengo enpresen proiektuak:

*Beraien merkatuetan finkatutako eta
duten negozio-ildoaren zati bat edo guztia
Ermuan kokatuta duten enpresen proiektuak.*

*Enpresa teknologikoen haztegitik pasa
eta beraien negozioa finkatu nahi duten
duela gutxi sortutako entitateen proiektuak.*

*Merkatura zuzendutako ikerketa
proiektuak garatzen dituzten entitateen
proiektuak, ikerketa-ildo hori Ermuan kokatu
nahi dutenean.*

*Beraien prozesuen sostengurako
azpiegiturak behar dituzten berrikuntza,
lehiakortasunaren hobetzea edo
nazioartekotzea helburu duten industri
entitateen proiektuak.*

**Artículo 3. – Actuaciones
subvencionables.**

Proyectos de:

Entidades consolidadas en sus
mercados que ubiquen en Ermua todo o
parte de su línea de negocio.

Entidades de reciente creación, que
hayan pasado por el vivero de empresas
tecnológicas y quieran consolidar su
negocio.

Entidades que realicen proyectos de
investigación con orientación al mercado y
ubiquen en Ermua esa línea de
investigación.

Entidades industriales con proyectos
de innovación, mejorar competitiva o
internacionalización que necesiten
infraestructuras de soporte a sus procesos.

Eta:

Beraien negozio-ildoa Izarra Centren kokatzen dutenak, PROMOSA sozietate publikoarekin 5 urteko alokairu-kontratu bat sinatu beharko dutelarik. Enpresa onuradunaren kontura joango dira berari dagozkion eraikinaren mantentze-kostuak eta gastu erkideak, bai eta eraikinaren barrualdeko inbertsioak (elektrizitatea eta abar) ere. Enpresa, adostutako denbora bete baino lehen Izarra Centretik joaten bada, Ermuko Udalarentzat edo PROMOSA sozietate publikoarentzat geratuko dira hark egindako hobekuntzak. Bestalde, enpresak bi hilabeteri dagokion abala formalizatu beharko du, hala onetsi baitzuen PROMOSAren Administrazio Kontseiluak, eta kasu honetan ere, adostutako denbora bete aurretik joaten bada Izarra Centretik, abala galdu egingo du.

Enplegua sortuz Ermuko egoera sozio-ekonomikoari bultzada ematen laguntzen dutenak (negozio plan batean oinarrituz).

Ermuko ehun ekonomikoa dibertsifikatzen lagunduko dutenak.

Laguntzak jasotzen dituzten bitartean gutxienez, Izarra Centren egongo direnak.

Ekintzaileentzat, Izarra Centreren kudeatzaileek eskatuta, antolatzen diren ekintzetan ezagutzak eskaini ditzakeen entitate bat bezala parte hartzen dutenak.

4. Artikulua.- Onuradunak

Deialdi honetan jasotzen diren laguntzen onuradun izango dira, diru-

Que:

Ubiquen su sede para esa línea de negocio en Izarra Centre, debiendo firmar un contrato de alquiler durante un periodo de 5 años con la Sociedad Pública PROMOSA, siendo por cuenta de la empresa beneficiaria los costes de mantenimiento y gastos comunes del edificio que le corresponda, así como las inversiones interiores (electricidad, etc..), quedando a disposición del Ayuntamiento de Ermua o de la Sociedad Pública PROMOSA las mejoras realizadas, en el caso de que no permaneciera durante el tiempo estipulado en Izarra Centre. Así mismo, deberá formalizar el aval correspondiente a dos mensualidades, tal y como aprobó el Consejo de Administración Promosa, perdiendo dicho aval en el caso de que no permaneciera durante el tiempo estipulado en Izarra Centre.

Contribuyan al impulso socioeconómico de Ermua mediante la generación de empleo (de acuerdo a un plan de negocio).

Ayuden a fomentar la diversificación del tejido económico de Ermua.

Garanticen su estancia en Izarra Centre durante al menos el tiempo por el que se hayan beneficiado de la subvención, y

Participen en las actividades propuestas por la gestión de Izarra centre como entidad ofertante de algún conocimiento (charlas, jornadas, etc.) para emprendedores.

Artículo 4.- Beneficiarios/as.

Podrán ser beneficiarios de las ayudas contempladas en la presente convocatoria,



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

IZARRA CENTREN KOKATUKO DIREN ETA ERMUKO INDUSTRI EHUNA BULTZATU ETA/EDO DIBERTSIFIKATUKO DUTEN ENPRESEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN OINARRIAK

**BASES DE AYUDAS DIRIGIDAS A IMPULSAR EMPRESAS TRACTORAS
Y/O DIVERSIFICADORAS DE TEJIDO INDUSTRIAL DE ERMUA QUE SE
UBIQUEN EN IZARRA CENTRE**

3009/2016

ALC10I0B8

Código de validación/Balidazio kodea

1S200E536I1V52160TPT



laguntzak jasotzeko edo Euskal Herriko Administrazio Orokorrarekin kontratatzeko ezgaituak ez dauden zuzenbide pribatuko entitateak, edozein dela beraien egitura juridikoa.

Zentro eskatzaileek eskaera aurkezteko momentuan beraien zerga-betebeharrak egunean eduki beharko dituzte, beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztuz horretarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomiadunek ematen dituzten izaera bereko beste laguntza batzuen eremuan, horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei laguntza emateko edo, hala badagokio, ordaindu ahal izateko.

5. Artikulua.- Diru-laguntzaren zenbatekoa

Izarra Centreko azpiegituren urteko alokairua finantzatu ahal izango da 12 euroko mugarekin, m²ko. Laguntza hauen onuradunek bi urtez jaso ahal izango dituzte, eta hirugarren urtean ere bai proiektua finkatzeko beharra justifikatu ezker, beti ere laguntza hauek jasotzeko urtero deituko den deialdiak ezartzen duen garaian eta forman egiten badute.

6. Artikulua.- Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

Euskarri-papereko eskaerak Ermuko udalaren webgunean, Interneten bidez, edo Abiapuntun eskuratuko beharko den inprimaki normalizatuan egingo dira. Eskaera enpresa-ekimenaren legezko

las entidades de derecho privado, cualquiera que sea su estructura jurídica, que no se encuentren inhabilitados para la obtención de subvenciones públicas o para contratar con la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Los centros solicitantes deberán estar en el momento de presentar la solicitud al corriente o exentos de sus obligaciones tributarias, para lo que deberán mostrar la pertinente documentación.

La concesión y, en su caso, el pago de las ayudas a las entidades beneficiarias quedarán condicionados a la finalización de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 5- Cuantía de la subvención:

Serán financiables los gastos de alquiler anual de las instalaciones de Izarra Centre hasta un máximo de 12 euros m². Los beneficiarios/as de estas ayudas lo podrán ser por dos anualidades, prorrogable a una tercera si se justifica su necesidad para la consolidación del proyecto y siempre y cuando lo soliciten en tiempo y forma en la convocatoria anual de estas subvenciones.

Artículo 6 -Solicitudes, documentación y plazo de presentación.

Las solicitudes en soporte papel se formularán en el correspondiente impreso normalizado que se podrá recoger en Abiapuntu o descargarse a través de la Web municipal, y firmado por el /la responsable

ordezkariak sinatu beharko du.

Eskaerak Ermuko Udaleko Plangintza Estrategiko eta Berrikuntza Alorreko zuzendariari zuzendu eta bidali beharko zaizkio, (Valdespinako Markesa 1 48250 Ermua – Bizkaia). Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Herri Administrazioaren Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. 4 artikuluan –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran– adierazitako beste bideak erabiliz ere aurkeztu daitezke eskabideak.

Diru-laguntzak eskatzeko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik urtero deialdian ezartzen den egunera arte izango da, Aurtengo deialdia 2016eko azaroaren 10ra arte egongo da zabalik.

Ikusten bada eskabideak deialdiaren arauetan ezarritakoa ez duela betetzen, 5 eguneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko, eta hori egin ezean eskabidea egitetik atzera egin dela pentsatuko da.

Erakunde eskatzaileak nahi duen hizkuntza ofizialean aurkez dezake bere eskabidea, exijitutako dokumentazioarekin Halaber, eskabidearen ondoriozko jardueretan eta prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Arautzeko, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek ezartzen duten bezala.

Eskaeraz gain, eskatzaileek ondorengoak aurkeztu beharko dituzte, bai internet bidez bai euskarri-paperean:

legal de la iniciativa empresarial para la que se solicita la ayuda.

Las solicitudes se dirigirán y enviarán a la Directora del Área de Planificación Estratégica e Innovación del Ayuntamiento de Ermua. Marqués de Valdespina, 1. 48260 Ermua – Bizkaia), pudiendo asimismo ser presentadas en las demás formas indicadas por el artículo 38. 4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

El plazo para solicitar las ayudas será desde el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia hasta la fecha que se indique en la convocatoria anual. La convocatoria para el año 2016 será hasta 10 de Noviembre de 2016.

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en la norma de convocatoria, el órgano competente le requerirá que la subsane en el plazo de 5 días. De no hacerlo, se supondrá que ha desistido de su solicitud.

Las entidades solicitantes podrán presentar la solicitud, junto con el resto de la documentación exigida, en el idioma oficial de su elección. Así mismo, en las actuaciones derivadas de la solicitud, y durante todo el procedimiento, se utilizará el idioma elegido por la entidad solicitante, tal y como establecen los artículos 5.2.a) y 6.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización de Uso del Euskera.

A la solicitud se acompañarán bien por vía electrónica o en soporte papel:

Memoria del proyecto de negocio o



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

IZARRA CENTREN KOKATUKO DIREN ETA ERMUKO INDUSTRI EHUNA BULTZATU ETA/EDO DIBERTSIFIKATUKO DUTEN ENPRESEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN OINARRIAK

**BASES DE AYUDAS DIRIGIDAS A IMPULSAR EMPRESAS TRACTORAS
Y/O DIVERSIFICADORAS DE TEJIDO INDUSTRIAL DE ERMUA QUE SE
UBIQUEN EN IZARRA CENTRE**

3009/2016

ALC10I0B8

Código de validación/Balidazio kodea

1S200E536I1V52160TPT



Udalaren babes ekonomikoa justifikatzen duen proiektu edo ikerketaren memoria. Memoriak Ermuan enplegua sortzeko ahalmena eta bere izaera dibertsifikatzailea edo Ermuko industri ehuna sedotzekoa jaso beharko du.

Erakundearen estatutuak eta pertsona eskatzailearen ahalmenak.

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako ziurtagiria, zerga-betebeharrak beteta dituztela egiaztatzeko.

7. Artikulua.- Jardunbidea bideratzea

Behar bezala aurkeztutako edo epean zuzendutako eskabideak Balioespen Batzordeak ebaluatu eta hautatuko ditu, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Batzorde hori artikuluko honetako lehenengo paragrafoan dago definituta.

1.- Balioespen Batzordeak honako kide hauek izango ditu: Plangintza Estrategiko eta Berrikuntza Alorreko zuzendaria edo berak eskuordetutako teknikaria eta Tokigarapen alorreko enpresen arloko teknikari arduradun bat. Batzorde honek txosten bat egingo du bertako industri ehunarentzako Diru-laguntzen Batzordeari, bere adostasuna emateko, aurkeztu beharko zaiona. Batzorde horretan alderdi politikoetako ordezkariak egongo dira, eta haiek ebaluazioa haztatua egingo dute udalbatzarrean duten ordezkariaren arabera, gero, azkenean, Alkatetza Dekretu bidez onesteko.

2.- Balioespen Batzordeak proiektuak balioetsiko ditu, honako irizpide hauen

investigación que justifique el apoyo financiero del Ayuntamiento. La memoria debe recoger la capacidad del proyecto para generar empleo en Ermua así como su carácter diversificador o de consolidación del tejido industrial de Ermua.

Estatutos de la entidad y poder de la persona solicitante.

Certificado de la Diputación de Bizkaia acreditativa de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

Artículo 7 - Instrucción del procedimiento.

La evaluación y selección de las solicitudes debidamente presentadas o subsanadas en plazo, de acuerdo con lo establecido en el artículo anterior, las realizará la Comisión de Valoración y será corroborada por el Comité Municipal de Subvenciones al tejido económico local que se definen en el apartado 1 de este artículo.

1. – La Comisión de Valoración estará integrada por la Directora del Área de Planificación Estratégica e Innovación o técnico/a en quien delegue y un/a Técnico responsable del servicio de empresas del Área de Desarrollo Local. Esta comisión elaborará un informe que será presentado para su conformidad al Comité Municipal de Subvenciones al tejido económico local, que estará compuesto por representantes de los grupos políticos existentes que efectuarán su valoración de forma ponderada en función de su representación en el Pleno Municipal, para su aprobación mediante Decreto de Alcaldía.

2.- La Comisión de Valoración, evaluará los proyectos aplicando los criterios

arabera:

a) *Proiektuen egokitzapena, deialdiko modalitate honetarako zehaztutako lehentasunezko eremu eta ildoak aintzat hartuta (l. eranskina): gehienez, 20 puntu.*

b) *Ermuan enplegua sortzeko ahalmena (aurkeztutako negozio-planaren arabera): gehienez, 35 puntu.*

c) *Ermuko toki-garapenerako interesgarria baldin bada: gehienez, 35 puntu.*

d) *Izarra Centre eta Ermua negozioak egiteko leku moudan ezagutarazteko eta hedatzeko plana: gehienez, 10 puntu.*

60 puntuko gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten proiektuak ez dira, finantzagarritzat edukiko.

Balioespen Batzordeak diru-laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, aurkeztutako aurrekontua, deialdia finantzatzeko geratzen diren baliabide ekonomikoak eta lortu nahi diren helburuak lortzeko aurrekontua egokia ote den aztertuko du, ebaluazio prozesuan lortutako puntu-kopuru osoa kontutan hartuz..

8. Artikulua.- Ebazpena eta helegiteak.

1. Hartzen den erabakiak eskatutako diru-laguntzen ematea eta, behar denean, ukatzea erabakiko du. Diru-laguntza emateko erabakiak erakunde onuraduna, diruz lagunduko den proiektua eta diru-laguntzaren zenbatekoa adieraziko du. Ukatzeko erabakiak laguntza ez ematearen

de valoración siguientes:

a) Adecuación de los proyectos a las áreas y líneas prioritarias definidas para esta modalidad en la convocatoria (anexo I): hasta un máximo de 20 puntos.

b) Capacidad para la generación de empleo en Ermua (de acuerdo al plan de negocio presentado): hasta un máximo de 35 puntos.

c) Interés de la propuesta para el desarrollo local de Ermua: hasta un máximo de 35 puntos.

d) Plan de difusión y divulgación de Izarra Centre, y Ermua como lugar para el desarrollo de negocios: hasta un máximo de 10 puntos.

Aquellos proyectos que no alcancen una puntuación mínima de 60 puntos no serán considerados como financiables.

La Comisión de Valoración calculará la cuantía de las ayudas evaluando el presupuesto presentado, los recursos económicos existentes para la financiación de la convocatoria, y la adecuación del presupuesto presentado para la consecución de los objetivos pretendidos, tomando en consideración la puntuación obtenida en el proceso de evaluación.

Artículo 8 - Resolución y Recursos

1. La resolución que se adopte determinará la concesión y, en su caso, la denegación de las subvenciones solicitadas, expresando en el caso de las primeras, la entidad beneficiaria, el proyecto subvencionado y el importe de la subvención concedida. En el caso de las denegadas recogerá los motivos que fundamenten la



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**IZARRA CENTREN KOKATUKO DIREN ETA ERMUKO INDUSTRI EHUNA
BULTZATU ETA/EDO DIBERTSIFIKATUKO DUTEN ENPRESEI
ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN OINARRIAK**

**BASES DE AYUDAS DIRIGIDAS A IMPULSAR EMPRESAS TRACTORAS
Y/O DIVERSIFICADORAS DE TEJIDO INDUSTRIAL DE ERMUA QUE SE
UBIQUEN EN IZARRA CENTRE**

3009/2016

ALC10I0B8

Código de validación/Balidazio kodea

1S200E536I1V52160TPT



arrazoiak jasoko ditu.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen den ebazpenak administrazio-bidea agortzen du eta onuradunek ezingo dute bere horren kontra helegiterik aurkeztu.

3. Ezartzen den ebazpena eskaera hartu eta biharamunetik aurrera bi hilabeteko apean jakinaraziko da Ermuko Udalaren web orrian. Epe hori iragaitean ebazpenik argitaratu ez bada, eskabidea ez dela onartu ulertu beharko dute eskatzaileek, eta ukapenaren zergatia eskatu ahal izango dute hurrengo 10 egunen buruan, zeinak 15 egun bete baino lehenago eman beharko diren.

4. Diru-laguntza lortzen duten erakundeei emakida jakinarazten dien idatzia bidaliko zaie, diru-laguntzaren Onarpen-agiriaren eta Diru-laguntzaren datuei buruzko agiriaren bi alekin batera. Diru-laguntzaren Onarpen-agiriaren ale bat eta Diru-laguntzaren datuei buruzko agiriaren beste bat, horiek hartu eta hamabost egunen buruan itzuli beharko dira, erakundearen legezko ordezkariak sinatuta.

9. Artikulua.- Onuradunen betebeharrak

Nolanahi ere, diru-laguntzaren entitate onuradunak ondorengo betebeharrak izango ditu:

1. Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, emakidaren komunikazioa jasotzen denetik aurrera hamabost eguneko

denegación.

2. La resolución a la que se refiere el párrafo anterior pone fin a la vía administrativa y contra la misma no podrán las entidades interesadas interponer recurso.

3. La resolución que se adopte será notificada mediante su publicación en la página Web del Ayuntamiento de Ermua en el plazo máximo de dos meses a contar a partir del día siguiente a la recepción de la solicitud. Transcurrido dicho plazo sin haberse publicado la Resolución, las entidades solicitantes podrán entender desestimada su solicitud, ante lo cual podrán reclamar en los siguientes 10 días, los motivos de denegación, que deberán ser emitidos en un plazo no superior a 15 días.

4. A las entidades que obtengan financiación se les enviará un escrito comunicando la concesión y, por duplicado, el Documento de aceptación y Documento de Datos de la Ayuda. En este último figurará el importe de la ayuda concedida y el destino de la misma. Un ejemplar del Documento de aceptación y del de Datos de la ayuda deberán devolverse una vez cumplimentados con las firmas del representante legal de la entidad en el plazo de quince días desde su recepción.

Artículo 9 - Obligación de los beneficiarios

La entidad beneficiaria de la subvención deberá cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

1. Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días, a contar desde la recepción de la

epean Ermuko Udaleko Plangintza Estrategiko eta Berrikuntza Zuzendaritzara aurreko artikuluan aipatzen diren dokumentuak bidali ezean, diru-laguntzari uko egiten zaiola pentsatuko da.

2. Diru-laguntza eman den helburu zehatzerako eta kontzeptuetarako erabiltzea.

3. Udal kontu-hartzaileari, bere eginkizunak egikaritzuz eskatzen duenean, deialdi honen bitartez jaso den diru-laguntzari buruzko informazioa ematea.

4. Ermuko Udaleko Plangintza Estrategiko eta Berrikuntza Alorreko zuzendariari eskabidean jasotako datuen edo inguruabarren edozein aldaketa lehenbailehen jakinaraztea.

10. Artikulua – diru-laguntzen ordainketa

2016eko deialdi honetan laguntzak ordainketa bakarrean emango dira, bertan deialdian aurreikusitako prozeduraren arabera gastuak justifikatu ondoren.

11. Artikulua.- diru-laguntzen justifikazioa

Entitate onuradunak laguntzarekin egindakoa justifikatu beharko du, Ermuko Udaleko Plangintza Estrategiko eta Berrikuntza Alorreko zuzendariari ondorengo dokumentazioa aurkeztuz:

1. Entitate onuradunak entitatearen arduradunak sinatutako proiektuaren garapen-egoera eta lortutako helburu partzialak jasotzen dituen memoria bidali

comunicación de concesión, no remitiera a la Dirección del Área de Planificación Estratégica e Innovación del Ayuntamiento de Ermua los documentos a los que se hace referencia en el artículo anterior, se entenderá que renuncia a la misma.

2. Utilizar la subvención para el destino concreto y para los conceptos para los que ha sido concedida.

3. Facilitar a la Intervención municipal la información que les sea requerida, en el ejercicio de sus funciones, respecto de la subvención recibida a través de esta convocatoria.

4. Comunicar a la Dirección del Área de Planificación Estratégica e Innovación del Ayuntamiento de Ermua, a la mayor brevedad, cualquier variación sobrevenida de los datos o circunstancias que se reflejaron en la solicitud.

Artículo 10- Pago de las Ayudas

En la convocatoria del año 2016 el pago de las ayudas se realizará en un pago único que será efectivo, previa justificación de gastos de acuerdo al procedimiento previsto en esta convocatoria.

Artículo 11 - Justificación de las Ayudas

La entidad beneficiaria queda obligada a justificar el destino dado a la ayuda mediante la aportación a la Dirección del Área de Planificación Estratégica e Innovación del Ayuntamiento , de la siguiente documentación:

1. La entidad beneficiaria deberá enviar una memoria del estado de desarrollo del proyecto y de los objetivos parciales alcanzados, siendo firmada por el



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**IZARRA CENTREN KOKATUKO DIREN ETA ERMUKO INDUSTRI EHUNA
BULTZATU ETA/EDO DIBERTSIFIKATUKO DUTEN ENPRESEI
ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN OINARRIAK**

**BASES DE AYUDAS DIRIGIDAS A IMPULSAR EMPRESAS TRACTORAS
Y/O DIVERSIFICADORAS DE TEJIDO INDUSTRIAL DE ERMUA QUE SE
UBIQUEN EN IZARRA CENTRE**

3009/2016

ALC10I0B8

Código de validación/Balidazio kodea

1S200E536I1V52160TPT



*beharko dio Plangintza Estrategiko eta
Berrikuntza Alorreko zuzendariari.*

responsable de la entidad.

*2. Onuradunak arduradunak sinatutako
azken memoria (tekniko eta ekonomikoa)
bidaliko dio Plangintza Estrategiko eta
Berrikuntza Alorreko zuzendariari. Memoria
ekonomikoarekin batera proiektua garatu
bitartean egindako gastuak frogatzen
dituzten jatorrizko ordain-agiriak edota
horien kopia konpultsatuak aurkeztu beharko
dira.*

2. La entidad beneficiaria enviará una memoria final (técnica y económica) firmada por el representante legal de la entidad gestora de la ayuda. A la memoria económica se acompañarán las facturas originales o copias compulsadas de las mismas, que documenten los gastos realizados durante el desarrollo del proyecto.

**12. Artikulua – diru-laguntzaren
aldaketa**

*Diru-laguntza emateko kontutan hartu
diren baldintzak modu batean edo bestean
aldatzen badira,, emandako diru-laguntza
aldatzeko bidea eman ahal izango du,
deialdi honek diru-laguntzen onuradunak
izateko ezartzen dituen gutxieneko
baldintzak mantentzen badira beti ere.
Baldintzen aldaketen ondorioz diru-
laguntzaren zati bat edo guztia itzuli beharko
balitz, dagokion itzulketa-prozesuari ekingo
zaio.*

**Artículo 12. – Modificación de la
Subvención.**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención podrá dar lugar a la modificación de la subvención concedida, salvaguardando los requisitos mínimos establecidos en esta Convocatoria para ser beneficiario de las subvenciones. En el supuesto de que de la alteración de las condiciones pudiera derivarse la devolución de la totalidad o parte de la subvención concedida, se iniciará el correspondiente procedimiento de reintegro.

**13. - Artikulua – Beste diru-laguntza
batzuekin konkurrentzia**

*Deialdi honetan aurreikusitako diru-
laguntzak beste administrazio edo erakunde
publiko zein pribatu batzuek kontzeptu eta
helburu bererako emandako beste edozein
diru-laguntza, laguntza edo diru-sarrerarekin
bateraezinak dira.*

**Artículo 13. – Concurrencia con
otras ayudas o subvenciones.**

Las ayudas previstas en esta convocatoria no son compatibles con la obtención de cualquier otro tipo de subvención, ayuda o ingreso que por el mismo concepto y finalidad le sean otorgadas por otras Administraciones o entidades públicas o privadas.

**14. Artikulua. – Betebeharrak ez
betetzea**

Deialdi honetan aurreikusten diren

Artículo 14 - Incumplimientos

En el supuesto de que las personas beneficiarias de las subvenciones previstas

diru-zenbatekoen erakunde onuradunak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa-arauei buruzko Legearen Testu Bategineko 53.1 artikuluan arautzen den egoeraren batean suertatzen badira, edo erakunde onuradun horiek deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat urratzen badute, Ermuko Udalak, dagokion ebazpenaren bidez, onuradunak hartu zituen zenbatekoak, guztiak edo zati bat, eta diru-laguntza ordaindu zen unetik aurrerako interesak itzuli behar dituela agindu dezake.

15. Artikulua.- Araubide juridikoa

Diru-laguntza hauen emakida ondorengo arauak arautzen dute:

Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorrak.

Ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Diru-laguntzen Lege Orokorra onesten duena.

Ermuko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak.

I. Eranskina. Ildorik behinenak

1. Ermuko ehun ekonomikoaren dibertsifikazioa

Cloud Computing

Ikus-entzunezko edukiak

Zuntz optikoa

Gizarte-zerbitzu teknologiak

Energia eta garapen jasagarria

en esta convocatoria incurriesen en alguno de los supuestos del artículo 53.1 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, o incumpliesen cualquiera de las condiciones establecidas en la presente convocatoria, el ayuntamiento de Ermua, mediante la correspondiente resolución, declarará, en su caso, la obligación de reintegrar total o parcialmente, las cantidades percibidas más los intereses legales que correspondan desde el momento del pago de la subvención.

Artículo 15.- Régimen jurídico aplicable.

La concesión de estas subvenciones se regula por:

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Ermua.

Anexo I Líneas prioritarias

1. Diversificación del tejido económico de Ermua

Cloud computing

Contenidos audiovisuales

Fibra óptica

Tecnologías servicios sociales

Energía y desarrollo sostenible



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**IZARRA CENTREN KOKATUKO DIREN ETA ERMUKO INDUSTRI EHUNA
BULTZATU ETA/EDO DIBERTSIFIKATUKO DUTEN ENPRESEI
ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN OINARRIAK**

BASES DE AYUDAS DIRIGIDAS A IMPULSAR EMPRESAS TRACTORAS
Y/O DIVERSIFICADORAS DE TEJIDO INDUSTRIAL DE ERMUA QUE SE
UBIQUEN EN IZARRA CENTRE

3009/2016

ALC10I0B8

Código de validación/*Balidazio kodea*

1S200E536I1V52160TPT



2. Ermuko industri egitura finkatzea

I+G+b

Nazioartekotzea

Lehiakortasuna hobetzea

**2. Consolidación de las estructura
industrial de Ermua**

I+D+i

Internacionalización

Mejora competitiva